



ARABAKO LAUTADA

ZURE ALDE BASATIA AGERIKO EGIN



ARABAKO LAUTADA ESKUALDEKO TURISMO BULEGOA
Mayor, 8 – 10200 Salvatierra-Agurain (Araba)
Telefono eta fax: 945 30 29 31
e-mail: 2turismo@arabakolautada.eus



LAUTADAKO ELIZA MARGOTUAK

GAZEO / ALAITZA / AÑUA / ARBULU



ARABAKO LAUTADA



GAZEOKO TOURSEKO SAN MARTIN ELIZA



Kanpoaldetik ikusita, abside erdizirkularak jatorri erromanikoa adierazten digu, hala ere, barrualdeko margolanek jatorri gotikoa daukate. Margolan ikusgarri hau 1967an deskubritu zen erretaularen atzealdean ezkutaturik. Hainbat zaharberritze eta gero, irudi hauek azaleratu ziren, arimaren bidaia irudikatzen dutenak, XIV. mendeko sinesmenak oinarri.



Konposizioaren erdian Graziaren Tronua ikus dezakegu, Aitaren, Seme gurutziltzatuaren eta uso irudia duen Espiritu Santuaren irudiek osaturik. Inguruan aingeruen koruak, ama birjinak eta santuak ikus ditzakegu etengabeko gurtzan. Behoko aldean gurutziltzatzearen irudia eta San Migelen arimen pisatzea ikus dezakegu.



Alboetako batean infernuko ahoa azaltzen zaigu, arrantzaleak harantz doazelarik. Kalitate handiko margolana da Gazeokoa, eta Erdi Aroko erlijioaren inguruko ikasgai bikaina.

AÑUA AÑUAKO AMA BIRJINAREN ELIZA



Nabarmena da XIII. mendeko abside handia, erromaniko eta gotiko garaien artekoa. Hau arkuz, idi-begiz eta leihatez beterik dago, baita Arabako harburu bilduma adierazgarriez ere. Eraikuntzan parte hartu zuten lantegien kalitatea eta originaltasuna Arabako deigarienetakoia izatea ekartzen du.



Barrualdean, leihateek, Erdi Aroko apainduraz baterikoak, polikromia originala erakusten digute. Gangetan, berriz, harlanduak eta irudi geometriko gorriak ikus ditzakegu. Absidearen hornetako batean Alaitzako margoekin lotura duten bataila bateko pertsonaia eskematikoak agertzen zaizkigu.

Elizak XVI. mendean izan zuen zabalkuntzak, aldi honetako margolan interesgarriak utzi zizkigun. Gangetan errenazimentuko pintzelada bereizgarria azaltzen zaigu, eta horman hiri harresitu baten mural interesgarria.

ELIZETARAKO BISITA GIDATUEN ORDUTEGIAK:

**LARUNBATAK
(ETA UZTAILA ETA ABUZTUKO ASTEARTEAK)**
11:00etan
▪ Gazeoko Toursek San Martin eliza
▪ Alaitzako Andre Mariren Jasokundearen eliza.

Jarraipena, 13:00etan
▪ Añuako Ama Birjinaren eliza.
▪ Arbuluko San Martinen eliza.

**IGANDEAK
(ETA UZTAILA ETA ABUZTUKO OSTEGUNAK)**
11:00etan
▪ Gazeoko Toursek San Martin eliza.
▪ Alaitzako Andre Mariren Jasokundearen eliza.

Jarraipena, 13:00etan
▪ Aguraingo hiribildu harresituarri bisita.

ALAIZTA ALAITZAKO ANDRE MARIREN JASOKUNDEAREN ELIZA



Alaitzako eliza Erdi Aroak utzi digun misterio handienetakoa da. Barrualdean, irudi gorri bitxi eta arrunt batzuk, XII. mendean margotuak, Erdi Aroko nobleziaren egunerokoaren hainbat pasarte erakusten dizkigute, apena referentzia erlijiosorik gabe.



Margolanaren erdialdean oinezko eta zaldi gaineko soldaduek gaztelu bati egindako setioa ikus dezakegu. Inguruan damen prozesioak, hileta bat eta ganga osoa hartzen duten interpretazio zaileko beste hainbat gertaera.

ARBULU ARBULUKO SAN MARTINEN ELIZA



Kanpoaldetik ez da antzematen barruan elizak daukan margo-altxorra. Elizak izan dituen aldaketak eta zabalkuntzak margolanen historian barrena ibilbide zabal bat egitea ahalbideratzen digu, Erdi Arotik barrokorako bidea, errenazimentutik igoroz.



Duela gutxi, erretaula erretiratu eta gero, margolan gorri harrigarria azaldu zen eliza erromanikoen abside zaharraren gainean egina. Bertan irudi geometrikoak, animaliak eta sagarapen-gurutzeak ikus ditzakegu.

Margolanen kalitateari, presbiterioaren ganga-giltzarrien maisutasuna gaineratu behar diogu. Gotikoak dira eta kalitate eskultoriko bikaina daukate. Urreztua eta polikromia originala ere kontserbatzen dira.



Informazio gehiago, talde-bisitak eta erreserbak :
ARABAKO LAUTADA ESKUALDEKO
TURISMO BULEGOA
945 302 931